

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Infanta Elena Zentroko ezgaitasuna duten pertsonen arretazerbitzuaren kudeaketa eskuratzeko eskaintza egingo du

*Lau urtetan 17 milioi euro bideratuko dira 70 egoitza-plazei eta eguneko zentrorako 12 plazei estaldura emateko*

Miércoles, 04 de septiembre de 2013

Nafarroako Gobernuak asteazken honetako bilkuran Cordobillako (Galar) Infanta Elena Zentroaren kudeaketarako asistentzia-kontratua eskuratzeko eskaintza egitea baimentzea erabaki du, zeinak, ezgaitasun fisiko larria edo zorrotza duten pertsoneri zerbitzua ematen dien.

Kontratua urriaren 1ean hasiko da eta 2014ko abenduaren 31n amaituko da. Denboraldi horretarako baimendutako gehieneko gastua 5,29 milioi eurokoa izango da, BEZa barne. Kontratua luzatu daiteke, guztira, lau urteko iraupena izan arte, 17 milioi euroko balio estimatuarekin.

Zehazki, esleipendunak 70 egoitza-plaza (arreta integrala eguneko 24 ordutan, urteko egun guztietan) eta eguneko zentroko 12 plaza (egunean zeharreko arreta astelehenetik ostiralera lanegunetan, urteko 12 hilabetetan) kudeatuko ditu.

Azpimarratu behar da eskaintza hori Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren eta Quavitae Servicios Asistenciales S.A.U. (lehen, Mapfre Quavitae S.A.) enpresaren arteko kontratua amaitu delako egin dela; 2009az geroztik enpresa horrek kudeatu du zerbitzua.